

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



AEK-KORRIKAK aurkeztu egin ditu 23. KORRIKARI buruzko unitate didaktikoak euskaltegiatarako

Besteak beste, KORRIKAREN historian bidaia egitea proposatzen dute; bilduma osoa www.korrika.eus webgunean dago eskuragarri.

23. KORRIKA ardatz, unitate didaktikoak aurkeztu dituzte gaur AEK-k eta KORRIKAK, Amaia Lopez de Luzuriaga eta Joseba Irazabal egileekin batera, Altsasuko Itsasi AEK euskaltegian.

Webgunean, aurrena, unitate laburrak topatuko ditugu; albiste motzak dira, edizio honetako kanta aitzakiatzat hartuta, KORRIKA badatorrela iragartzekoak. Ataza horiek abenduan argitaratu ziren, kanta publiko egitearekin batera. Horrez gain, behe-mailetarako, Ane Elordi Alburquerque KORRIKAKO arduradun nagusiari egindako elkarrizketa ere txertatu dute. Unitate horiei lotuta, hamabi galderako Kahoot jolasa sortu da, behe-mailetako zenbait eduki errepasatzeko aukera ematearren.

Horrez gain, KORRIKA ibilbidearen jolasa dugu; urtero argitaratzen da, baina aurten nobedadeak dakartza. Horien artean, online galdetegia dugu. Horri esker, paperezko txartelak mozten ibili beharrean, irakasle-ikasleek online irakurri ahal izango dituzte galderak. KORRIKA ataleko txartelei dagokienez, ohiko galderez gain, "audioak eta bideoak" topa daitezkeela nabarmendu du Lopez de Luzuriagak. Unitate labor horri amaiera emateko, euskara-ikasleek KORRIKA aplikazioaren inguruko albistexo bat irakurri ahal izango dute, ibilbidearen inguruko xehetasunak jakiteko.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Azkenik, unitatearen zati nagusia daukagu: Joseba Irazabalek sortua, “KORRIKA historian” du izenburua, eta gehienbat online egitekoa da. Bertan, ikasleari ibilbide birtual bat proposatzen zaio: KORRIKAtik KORRIKara bidaiatzeko aukera izango du, hainbat hamarkadatan.

Lehendabiziko pantailetan, unitate osoko lanen azalpena aurkituko dugu. Ondoren, bideo batek KORRIKAREN historia gogoraraziko digu, eta, hori ikusita, garaia hautatzeko pantailara helduko gara: KORRIKA 80ko hamarkadan, KORRIKA 90eko hamarkadan ala KORRIKA XXI. mendean. “Gure proposamena hirurak jarraian egitea da” azaldu du Irazabalek.

Garaia aukeraturik, beste bideo batzuk zabalduko zaizkigu, zeinek hamarkada bakoitzean KORRIKA nola garatu zen erakutsiko diguten, garai horretan euskarak eta munduak nolako egoera bizi zuten informatzeaz gain. Horrekin guztiarekin batera, hizkuntza- eta ulermen-jarduerak ere aurkituko ditugu bertan.

Hemen lotura: <https://www.korrika.eus/eu/unitatedidaktikoak>

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus